

HONDARRIBIA SENTITU

DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO BISITAK

Hondarribiak asko du ezagutzeko eta sentitzeko! “*Hondarribia Sentitu*” ekimenaren bidez, **Arma Plaza Fundazioak** dibertsitate funtzionala duten pertsonei egokitutako lau **bisita** mota eskaintzen ditu. Konkreterik, irisgarritasun fisikoaren, ikusmen irisgarritasunaren, entzumen irisgarritasunaren eta irisgarritasun kognitiboaren beharren arabera egokituak.

Ondorengo lerroetan zehazten den bezala, bisita bakoitzean gehienez **12 pertsonak** parte hartu dezakete. Bisita bakoitzak **70€**-ko kostua izango du **talde bakoitzeko**, Hondarribiko kolektiboak izan ezik, haientzat bisitak doakoak dira.

Jarraian, bisiten ezaugarriak eta irisgarritasunari buruzko informazio gehiago zehazten da.

1. Hondarribian barrena ibilaldia

1.1. Bisita gidatuaren informazioa:

- **Iraupena:** bi ordu inguru.
- **Ibilbidea:** abiapuntua San Pedro kalea da eta amaiera puntua Arma Plaza. Portu auzoa eta hirigune historikoaren atal esanguratsuenetako batzuk bisitatuko ditugu, esaterako, Carlos V.aren gazteluaren kanpoaldea.



- **Gehieneko parte hartzaile kopurua:** 12 pax.
- **Hizkuntza:** euskara edo gaztelania.

1.2. Irisgarritasun fisikoari buruzko informazioa:

- **Ibilbidearen ezaugarriak:** ibilbidea orokorrean laua da eta kalean zehar egingo da, ez gara eraikin historikoetara sartuko. Hirigune historikora igotzeko ibilgailua erabiliko dugu. Hirigune historikoan galtzada harrizkoa da baina egin beharreko ibilbidea laburra da.
- **Material osagarriak:** bisitan zehar laminak eta hiriko planoak erabiliko ditugu.
- **Komun publikoak:** Benta Zaharrean, Sabino Arana kalean eta Arma Plazan komun publikoak daude.



2. Hondarribia zure eskuetan

2.1. Bisita gidatuaren informazioa:

- **Iraupena:** bi ordu inguru.
- **Ibilbidea:** abiapuntua Santa Maria atea da eta amaiera puntua San Pedro kalea. Hirigune historikoko lekurik esanguratsuenak bisitatuko ditugu, Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria Eliza esaterako, eta arrantzaleen auzoa bisitatzen bukatuko dugu ibilbidea.



- **Gehieneko parte hartzaile kopurua:** 12 pax.
- **Hizkuntza:** euskaraz edo gaztelera egin daiteke bisita gidatua.

2.2. Ikusmen irisgarritasunari buruzko informazioa:

- **Ibilbidearen ezaugarriak:** ibilbidea kalean zehar egingo da gehienbat. Hala ere, hainbat eraikinetara sartuko gara, elizara eta Ramery jauregira esaterako. Bi toki hauek izango dira ilunenak. Ibilbidean zehar eskailerak igaroko ditugu eta hirigune historikoko galtzada harrizkoa da.
- **Komun publikoak:** San Juan de Dios errotondan, Arma Plazan eta Benta Zaharrean komun publikoak daude.
- **Material osagarriak:** bisitan zehar maketa eta elementu fisikoak eskuragarri izango dituzte partaideek. Bestalde, musika audioak ere erabiliko dira.





3. Hondarribia “hitzak baino gehiago”

3.1. Bisita gidatuaren informazioa:

- **Iraupena:** ordu eta erdi inguru.
- **Ibilbidea:** abiapuntua Arma Plaza da eta amaiera puntua San Pedro kalea. Hirigune historikoko lekurik esanguratsuenak bisitatuko ditugu, Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria Eliza esaterako, eta arrantzaleen auzoa bisitatzen bukatuko dugu ibilbidea.



- **Gehieneko parte hartzaile kopurua:** 12 pax.
- **Hizkuntza:** euskara edo gaztelania.

3.2. Entzumen irisgarritasunari buruzko informazioa:

- **Ibilbidearen ezaugarriak:** ibilbidea orokorrean klean zehar da eta azalpenak puntu zabal eta argitsueta ematen dira. Bisitaren atalik ilunena elizaren barrualdea da.
- **Komun publikoak:** Benta Zaharrean eta Arma Plazan komun publikoak daude.
- **Zeinu hizkuntzako interpretea:** aldezturik eskatu behar da zerbitzua, gutxienez 15 egun. ***Interpretearen kostua ez dago bisitaren prezioaren barne, gastu osagarri gisa gehituko da.**



4. Hondarribia esperimentatu

4.1. Bisita gidatuaren informazioa:

- **Iraupena:** bi ordu inguru.
- **Ibilbidea:** abiapuntua Benta zaharra da, Mariñel ontziaren parean, eta amaiera puntua Arma Plaza. Hondarribiko esentzien inguruan hitz egiten dugu: portuarrak, kaletarrak eta baserritarrak. Hiru gunen hauen ezaugarriak ezagutzea eta ulertzea da bisitaren helburua. Horretarako ibilbide labur bat egiten da toki esanguratsuenetako batzuk bisitatzeko, eta ondoren tailer bat joko desberdinekin.



- **Gehienezko parte hartzaile kopurua:** 12 pax.
- **Hizkuntza:** euskara edo gaztelania.

4.2. Irisgarritasun kognitiboari buruzko informazioa:

- **Ibilbidearen ezaugarriak:** ibilbidea orokorrean laua da eta kalean zehar egiten da gehienbat. Hirigune historikora igotzeko ibilgailua erabiliko dugu. Hirigune historikoan galtzada harrizkoa da baina egin beharreko ibilbidea laburra da. Elizaren barrualdera sartzeko 25 cm inguruko eskaloi bat dago.
- **Material osagarriak:** bisitan laminak eta beste elementu fisiko eta entzungaiak erabiliko ditugu edukiak hobeto azaltzeko eta ulertzeko. Era berean, tailerrean jolas desberdinak egiten dira azaldutako edukiak hobeto barneratzeko. Jolasen artean: hiriko eraikuntzen puzzleak, hiriko planoen puzzleak, mapa interaktiboak non parte-hartzaileek esentzia bakoitzari dagozkion pertsonaiak eta elementuak irudikatzen dituzten piezak itsatsi behar dituzten, etab.
- **Komun publikoak:** Benta zaharrean eta Arma Plazan komun publikoak daude.



Bisita gidatuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan info@armaplaza.eus helbidera idatziz edo 943 64 46 23 telefonora deituz.